



Berastegiko
Udala

**BERASTEGIKO UDALAREN
2020KO MARTXOAREN 10EKO
OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA**

Berastegin, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deia, 2020ko martxoaren 10ean, arratsaldeko zortzi eta erdietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Amaia Azkue Eizagirre Alkatearen presidentziarekin.

ALKATEORDEAK:

- 1. Alkateordea: Andoni Zuriarrain Iturbe Jauna.
- 2. Alkateordea: Itziar Atxukarro Otegi Andrea.

EH BILDU:

- Patxi Irisarri Aranalde Jauna.
- Uxue Arzallus Ansa Andrea.
- Mikel Beloki Urkizu Jauna.

BEASTI BIZI:

- Ainhoa Montes Arcaya Andrea.
- Ainara Ciaurriz Azanza Andrea.
- Aitor Lizarza Armendariz Jauna.

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Maria Pilar Garmendia Miguel.

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 20:30 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

GAI ZERRENDA:



Berastegiko Udala

- 1.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea.
- 2.- Aurreko batzarrei dagozkien aktei onarpen aurkezpena:
 - 2020ko urtarrilaren 14ko akta (Ohiko bilkura).
- 3.- Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala onartzeko proposamena.
- 4.- 2020. urterako soldata-maila igotzeko proposamena.
- 5.- Gipuzkoako Senideak elkartearen mozioa onartzeko proposamena.
- 6.- Berastegiko Udal eraikinetan energia berriztagarri bidez hornitutako azpiegitura elektriko eraikitzeko azterketa eta gastuaren onarpena.
- 7.- Ohiko plenoen ordutegia aldatzeko proposamena.
- 8.- 2020ko apirilaren 5ean Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan mahaietan egongo diren kideak izendatzea.
- 9.- Berastegiko Bake Epailea eta ordezkoa izendatzeko proposamena.
- 10.- Erregu eta galderak.

LEHENENGO PUNTUA:

ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Azaroaren 28ko 2568/1986, Errege Dekretuaren (ROF) 42. artikuluan xedatutakoarekin bat, Korporazio honen azken ohiko batzarretik gaurdaino eman diren Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen da, hain zuzen ere 2020/003tik 2020/031 dekretura doazenak, biak barne, honetaz guztiaz Udalbatza jakinean geratzen delarik.

2020/003	2020/01/03	Gizarte Larrialdietarako Laguntza R.I.T
2020/004	2020/01/03	Gizarte Larrialdietarako Laguntza B.O.
2020/005	23/01/2020	Hainbat zergen baja ematea
2020/006	24/01/2020	Egurra ateratzeko baimena. Ramon Atxukarro Zubeldia
2020/007	28/01/2020	Obra baimena. Santiago Zubiri. Etxabeen komun berria eta tximinia eraikitzeko baimena
2020/008	28/01/2020	Obra baimena. Jaione Egimendia. Iturgain etxean teilatu hegala margotzeko baimena
2020/009	31/01/2020	Ordainketa zerrenda Zkia.01 urtarrileko fakturak
2020/010	31/01/2020	Obra baimena. Ainara Ciarruiz. Ardientzako txabola bat egiteko baimena
2020/011	31/01/2020	Obra baimena. Ignacio Aldumberri. 03 -369 eta 357 partzelatan berdintze lanak baimena
2020/012	04/02/2020	Kontratazio zentrala - eraikinen auditoretza



Berastegiko Udala

2020/013	06/02/2020	Etxez etxeko laguntza zerbitzua eskeintzea
2020/014	07/02/2020	Obra baimena. Francisca Labayen Maiz. Kale Nagusia 2an dutxa jartzeko baimena
2020/015	10/02/2020	Bake epaile eta ordezkoa izendatzeko espedientearen hasiera
2020/016	10/02/2020	RE20200210 016 Muñagorri eskolan berrikuntza lanen onarpena
2020/017	10/02/2020	Obra baimena. Jose Migel Etxeberria. Alderdi Ederren 5ean zorua berritzeko baimena
2020/018	11/02/2020	Obra baimena Ainara Ciarruiz Azanza 09 poligonoko 003a partzela ixteko baimena
2020/019	12/02/2020	Beasti Guraso Elkartek proiektorea, mikrofono eta entxufe luzagailua erabiltzeko baimena
2020/020	12/02/2020	Urepelek inauterietan musika ekipoa erabiltzeko baimena .
2020/021	18/02/2020	Tolosako udalari Iñauterietako 200 aulki erabiltzeko baimena
2020/022	19/02/2020	Egurra ateratzeko baimena. Ustoa Gartziarena Jose
2020/023	19/02/2020	Egurra ateratzeko baimena. Arantza Ormaetxea Ipintza
2020/024	24/02/2020	W.Y.O.M. -Biztanlegoaren Erroldan Alta
2020/025	24/02/2020	I.B.O - Biztanlegoaren Erroldan Alta
2020/026	24/02/2020	A.G.A. Biztanlegoaren Erroldan Alta
2020/027	25/02/2020	Alkatetza honen A.D. 2019016 dekretua baliogabetzea eta indarrik gabe uztea
2020/028	25/02/2020	Herri bidea irekitzeko agindua
2020/029	26/02/2020	Datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren inguruko egokitzapena
2020/030	27/02/2020	Argiñenea baserriaren ondoko bordaren lehen erabilerarako baimena
2020/031	27/02/2020	031 Ordainketa zerrenda Zkia.02 otsaileko fakturak

BIGARREN PUNTUA:

AURREKO BATZARREI DAGOZKIEN AKTEI OHARPEN AURKEZPENA.

Osoko Bilkurako deialdiarekin batera honako akta agiriak banatu zaizkie zinegotziei, aztertu eta kasua balitz oharrak aurkez ditzaten:

- 2020ko urtarrilaren 14ko akta (Ohiko bilkura).

Informazio Batzorde Informatzaile Orokorrak 2020ko martxoaren 3an aldeko irizpena eman zuen.

Oharrak aurkeztu ez direnez, idatzita dauden era berean aho-batez onartzen dira.



Berastegiko
Udala

HIRUGARREN PUNTUA:

MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak honako adierazpen hau irakurri du hitzez hitz:

Urtetan mobilizazio ugariak egin eta bi greba feminista izan ondoren, kaleetako aldarria argia da, erabatekoa: gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, beharrezkoa da printzipio eta aldarrikapen feministak egitura eta politika instituzionaletan txertatzea. Beharrezkoa da eraldaketa erradikalak gauzatzea, erreproduzio sozial jasangarria politika horien erdigunean jartzeko kapital-metaketa alde batera utzita, azken horrek gehiengo sozialen bizi-baldintzak prekarizatzen dituelako eta natura merkantilizatu eta esplotatzen duelako, etorkizuneko belaunaldien biziraupena arriskuan jartzearaino. Beharrezkoa da, behingoz, emakume guztien indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea lehentasun politiko bat izatea. Beharrezkoa da instituzioek interpelazio hori gure gain hartzea, eta, gure ordezkariari erantzunez, herrialde honetako herritar guztiak —guzti-guztiak, salbuespenik gabe— hobeto bizi daitezen gure esku dagoen guztia egin dezagun. Ez digute eskatzen argazki gehiago egitea eta asmo-adierazpen soilak adostea, ezta desperekotasunen sustraiei heltzen ez dieten makillaje-politikak planteatzea ere: aitzitik, eskatzen digute guztionak diren baliabideak erabil ditzagun emakumeen eta gizonen artean dauden sakoneko desperekotasunei aurre egiteko, inor atzean utzi gabe, lan-errealitatearen, arrazaren, sexu-desiraren orientazioaren, administrazio-egoeraren, adinaren eta beste edozein arrazoiren arabera sistemak ezartzen dituen diskriminazio eta zapalkuntza ugariei erantzunez.

Premiazko egoera horren aurrean, erabateko konpromiso bat hartu behar dugu gure udalerrietako pertsonekin, berdintasunaren eta justiziaren alde. Eta konpromiso hori har dezakegu, bakar-bakarrik, zeharo demokratikoak diren prozesuak planteatzen baditugu, non instituzioetatik “obeditzen gobernatuko dugun”, emakume zapatisten hitzak erabiliz. Eta bakar-bakarrik lortuko ditugu gure bizitzekin zerikusia duten erabaki guztiak bizi garen tokian hartzen baditugu, gure lurraldeetan, gure herrialdean; hau da, subirano izan bagaitzke eta gure erabakitzeko eskubidea baliatzeko moduan bagaude.

Euskal herritar guztien erabakiak errespetatuko dituen esparru politiko eta instituzional bat eskatzeko eta eraikitzeko lanean jarraitzen dugun bitartean, subiranotasun feminista noranzko ugariko bide baten antzera agertzen da, emakume guztien askatasunak berreskuratzeko eta eskubideak zabaltzeko prozesu baten antzera, non egunero-egunero definituko eta gauzatuko dugun gure burua gobernatzeko zer egin nahi dugun eta gure herrialdearentzat zer bizi-baldintza nahi ditugun, guztiontzat, salbuespenik gabe, eta belaunaldi gazteenen etorkizuna hipotekatu gabe. Beharrezkoa da maila instituzional guztietatik lan egitea, koordinatuta eta ikuspegi subiranista zabal batekin, eta lehentasunak identifikatuz politika feministetan aurrerapauso sendoak egiteko, eremu guztietan eskubide eta askatasunak zabaltzearren.

Instituzioetan ere feminismoa egunero defendatzen eta eraikitzen delako, gaurko egunak balio behar du, halaber, Udal honek politika feministen alde hartu du(t)en konpromisoa berresteko, emakumeen erabakitzeko eskubidea



Berastegiko Udala

abiapuntua, euren bizitzak zeharka hobetzera zuzentzen diren arlo guztietako politika feministekin, azpimarra berezia jarri egoera ziurgarriago batean dauden emakume-kolektiboengan.

Horregatik guztiagatik, Berastegiko Udalak honako hau erabaki du:

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren bidean aurreratzeko neurri sorta bat garatzea udalerrian, beharrezkoak izango diren baliabide guztiak bermatuz:
 - Lanbide edo beste erakunde batzuekin bultzatzen diren enplegu-planen genero ikuspegia izango duen analisia egitea, eta sexuaren arabera eskaintzen den formakuntza eta enpleguen segregazioaren aurka neurriak diseinatzea eta abian jartzea.
 - Udaleko langileen soldata-egituraren (I Kap.) diagnostikoa egitea genero ikuspegitik, eta horren arabera soldata arrakalaren aurkako premiazko plana abiatzea. Halaber, langileentzako kontziliozko neurriak aztertuko dira, gizonek har ditzaten bultzatzeko asmoz.
 - Udal kontratazio publikoan klausula sozial eta genero klausulak txertatzeko plan progresibo bat diseinatzea eta abiatzea.
 - Udal aurrekontuen azterketa egitea, genero ikuspegitik, Udalak hartu dituen konpromisoen bideragarritasuna bermatuz.
 - Arlo publiko nahiz pribatuan udalerriko zaintzen errealitatearen azterketa egitea, genero ikuspegi batetik, eta neurriak martxan jartzea, besteak beste, zaintzen aitortza soziala eta gizon eta emakumeen erantzun kidetasuna bultzatzeko eta udaleko zerbitzu sozialen garatu eta hobetzeko, lan baldintza duinak bermatuz, bereziki Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuan.
 - Udalerriko emakumeek egindako ekarpena balorean jartzeko memoria historikoa lantzea.
 - Jabekuntza Eskolak, Emakumeen Etxeak eta beste espazio auto gestionatuak bultzatzea edota indartzea, betiere ahalduz ikuspegi feminista batetik.
 - Gazteei zuzendutako politketan, emakume gazteen ahalduz bultzatzea. Hezkuntza komunitatearekin batera hezkuntza sexu-afektiboa eta ikasketen aukeraketan neska eta mutilen arteko berdintasuna lantzerantz zuzendutako jarduerak jasotzea.
2. Lan espazio bat sortzeko prozesu parte hartzailea bat abiatzea non udaleko teknikari eta politikoei, mugimendu feministak eta hezkuntza, osasuna edo arlo sozialeko beste eragile batzuk parte hartuko duten. Espazio honek berdintasun politika publikoen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu (tartean, indarkeria matxisten aurreko protokoloak, jai parekideak, kanpainak etab.) eta arreta berezia jarriko du parte hartze politikorako zailtasun bereziak dituzten emakume kolektiboen parte hartzean.

Kontuan harturik Informazio Batzorde Informatzaile Orokorrek 2020ko martxoaren 3an aldeko irizpena eman zuela.



Berastegiko
Udala

Eta, besterik gabe, bozketa egin da, eta emaitza hau atera da:

Aldeko botoa eman dute: EH-BILDUko 6 zinegotziak eta BEASTI BIZIko 3 zinegotziak.

Eta aurrekoaren arabera, ERABAKI DA:

BAKARRA: Presidentziak aurkeztutako adierazpen onartzea.

LAUGARREN PUNTUA:

2020. URTERAKO SOLDATA-MAILA IGOTZEKO PROPOSAMENA.

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengo dioen:

2020KO ORDAINSARIEN GEHIKUNTZEI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA- 2/2020 ERREGE LEGE-DEKRETUA

2020ko urtarrilaren 22an, 2/2020 *Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 21ekoa*, argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), **sektore publikoaren esparruko ordainsariei buruzko premiazko neurriak hartzekoa.**

Aipatutako Errege Lege-dekretu horrek sektore publikoko langileen ordainsarien gehikuntzak arautzen ditu 2020. urteari begira, eta, ildo horretatik, soldata igoera finko bat, eta, ekonomiaren hazkundearekin lotuta, ehuneko osagarri bat gehitzea aurreikusten du. Zehazki, sektore publikoaren zerbitzura ari diren langileen gehikuntzak onartzeko ezinbestekoak diren zenbait alderdi arautzen ditu berariaz, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera eraginkorrak izango direnak; modu zehatzagoan, % 2ko igoera finkoa eta funts gehigarrietako % 0,3ko igoera xedatzen ditu; azken horiek, hain justu, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuetarako banatzen direnei dagozkie, eta, administrazio bakoitzean, erakunde sindikalekiko negoziazioekin daude lotuta.

Zehatz-mehatz, hauxe xedatzen du **2/2020 Errege Lege-dekretuak 3.Bi artikuluan:**

Bi. 2020an, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin izango dira gehitu 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko bi baino gehiago, homogeneotasunaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinasunari begira. Xede horretarako, 2019ko ordainsarietan, BPGd-aren bilakaerari lotutako ehuneko 0,25eko gehikuntza urteko zenbatekotan hartuko da aintzat. Oro har, gizarte-ekintzako gastuek 2020an ezin izango dute izan gehikuntzarik 2019koekiko. Horri



Berastegiko Udala

dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jo da, ez daukatenak zerikusirik egindako lanaren kontraprestazioekin, azken horien xedea zenbait premia asetzea baita, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langile horien gorabehera pertsonalen ondorioz.

Horrez gain, Barne Produktu Gordinaren gehikuntza, 2019ko prezio konstanteetan, ehuneko 2,5era edo gehiagora iritsiko balitz, soldata beste % 1 igoko litzateke 2020ko uztailaren 1etik aurrera. Adierazitako ehuneko 2,5 horretatik beheragoko gorakaden kasuan, gehikuntza proportzioan murriztuzko da, aipatutako ehuneko 2,5 horrekiko izan duen murrizketaren arabera; beraz, hauek izan dira gehikuntzak oro har:

BPGd-a 2,1 bada: % 2,20

BPGd-a 2,2 bada: % 2,40

BPGd-a 2,3 bada: % 2,60

BPGd-a 2,4 bada: % 2,80

Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, BPGd-a igotzeari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urte bakoitzean argitaratutako BPGd-aren aurrerapenaren estimazioa hartuko da kontuan. INEk BPGd-aren aurrerapena argitaratu ondoren, eta enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko jarraipen-batzordeari jakinarazita, igoera aplikatzea onetsiko da, hala badagokio, Ministro Kontseiluaren erabaki bidez. Erabaki horren berri emango zaie autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udalerrri eta Probintzien Espainiako Federazioari.

Gainera, soldata-masaren ehuneko 0,30eko gehikuntza osagarria baimendu ahal izango da, besteak beste, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuak ezartzeko, funtzio parekagarriak dituzten lanpostuen artean dauden osagarri espezifikoak berrikusteko, destino-osagarriak homologatzeko, edota pentsio-planetako ekarpenetarako.

Aurrekoa kontuan hartuta, 2/2020 Errege Lege-dekretua indarrean sartu ondoren, eta 2018ko eta 2019ko ekitaldietako ordainsarien gehikuntzei dagokienez EUDELek egin izan duenari jarraiki, Euskadiko udalei honako gomendio hau egitea egoki dela deritzo EUDELek, izan daitezkeen interpretazioak argitzen laguntzeko:



Berastegiko
Udala

GOMENDIOA

- **3.Bi artikuluko lehen paragrafoan** adierazten denari dagokionez, legeak baimendutako maximoa gehitzea langileen ordainsaria, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin; hau da, 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenekiko %2, homogeneotasunaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinasunari begira.
- **3.Bi artikuluko bigarren blokean** zehazten denari lotuta, eta kontuan hartuta Barne Produktu Gordinaren gehikuntza batzuen kasuan soldatak beste % 1 arte igotzeko aukera biltzen duela, gaur egun ez dakigu beteko den premisa hori, eta, ildo horretatik, Ministroen Kontseiluak zehazten eta onesten duena hartuko da kontuan. Dena dela, eta 3.Bi artikuluan xedatzen denarekin bat etorrita, gehikuntza horrek 2020ko uztailaren 1etik aurrera izango du eragina.
- **3.Bi artikuluko azken paragrafoak** soldata-masaren % 0,30eko gehikuntza osagarria egiteko aukera arautzen du, eta, udal-autonomiaren kalterik gabe, honako gomendio hau egiten diegu Euskadiko udalei: finantzen eta aurrekontuen esparruan dituzten aukeren neurrian, soldata-masaren % 0,30eko gehikuntza osagarria onets dezatela. 3.Bi artikuluko horretan jasotzen diren lege-formulen arabera banatuko da zenbateko hori, edo aplikagarri den beste edozein formularen arabera, udal-autonomiaren eta negoziazio kolektiboaren esparruan, betiere.

GOMENDIO honen bidez, lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi izan du EUDELEk, eta argi erakutsi nahi izan du, gainera, lege-agindu hori legediaren barnean langile publikoentzat modurik onuragarrienean interpretatzeko duen interesa; guztia, erakundeen eraginkortasunean eta lan-ingurunearen kalitatean aurrera egiteko asmoz, horrek guztiak bihurtu negoziazio kolektiboaren esparruan aurrera egiteko bidea erraztuko duen ustez, eta UDALHIITZ Akordio Arautzaile berria lortzeko lagungarri izango delakoan, betiere.

Kontuan harturik Informazio Batzorde Informatzaile Orokorrak 2020ko martxoaren 3an aldeko irizpena eman zuela.

Eta, besterik gabe, bozketa egin da, eta emaitza hau atera da:



Berastegiko
Udala

Aldeko botoa eman dute: EH-BILDUko 6 zinegotziak eta BEASTI BIZIko 3 zinegotziak.

Eta aurrekoaren arabera, ERABAKI DA:

BAKARRA.- 2020 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioaren 1. eta 2.go puntuak bere osotasunean onestea eta aplikatzea, ondorengoak izanik:

- Aipatutako 3. Bi artikuluko lehenengo paragrafoaren inguruan, 2020/01/01etik aurrerako eraginarekin, langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora igotzea, hau da, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko %2,25.
- Aipatutako 3. Bi artikuluko bigarren multzoari dagokionez, une honetan ez da ezagutzen sortutako soldata masaren igoeraren ehuneko zehatza. Hori dela-eta, Ministro Kontseiluak dagokion zehaztapena eta onespina emateko zain egon behar da, betiere, une honetan egokiak diren aurrekontu esleipenak hornitu ahal izateari kalterik eragin gabe. 3. Bi artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, igoera hori, dagokionean, 2020/07/01etik aurrera gehituko litzateke.

BOSGARREN PUNTUA:

GIPUZKOAKO SENIDEAK ELKARTEAREN MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak honako mozio hau irakurri du hitzez hitz:

Idazki honen bidez, Gipuzkoako Senideak elkarteak Udal honi eskatu nahi dio Osoko Bilkuraren mozioa hauek aurkez ditzala:

1.Gure adinekoen arreta lehentasunezko gaia da, eta, aldi berean, presako kontu bat, irizpide politiko sindikalen gorabeheren mende egon ezin dena.

2.Gipuzkoako Foru Aldundiari dei egitea behar diren neurriak har ditzan laneko gatazka hori konpontzeko, gatazka horrek erabateko eragin pasiboa/aktiboa baitu. Era berean, Foru Aldundiari eskatzea kobratutako kuoten eta eman gabeko zerbitzuen ehuneko zatiak itzultzeko konpromisoa bete dezala, eta hori ukatzen ari zaien eskubide gisa espero dute egoiliarrek eta mendekotasuna duten pertsonak. Era berean, Foru Aldundiari eskatzea arreta-ratioak berriz azter ditzala, ez errentagarritasun ekonomikoaren irizpideen arabera, baizik eta mendekotasuna duten eta ahulak diren pertsonen zerbitzua emateko, zerbitzu instrumentalizatu bat baino zerbait gehiago behar baitute.

3.Gaur egungo lan-gatazka konpontzeko, Foru Aldundiari eskatzen diogu mahai bat deitzeko, non inplikaturako alderdiak eseriko baitira gatazka hori amaitzeko helburu bakarrarekin.



Berastegiko
Udala

4. Bere Udaletik Gipuzkoako Egoitza eta Eguneko Zentroen Hitzarmen Kolektiboan gatazkan dauden sektoreko patronalei dei egitea, aurrera pauso bat eman eta arazo hori konpontzeko benetako ahalegina egin dezaten, beste pertsona batzuek gainditu ezin izan duten bizitza luzera baitu.

5. Udaletxe honek konpromisoa hartzen du zentro publiko eta itunduetan dauden egoiliarrei eta mendekotasuna duten pertsoneri laguntzeko gutxieneko kanonak nabarmen urratzen dituzten enpresen aurka jotzeko.

Azkenik, zure Udalari eskatzen diogu, Osoko Bilkuran goian adierazitako puntuak onartu ondoren, ondorio horiek lehenbailehen Gizarte Politikako foru diputatuari helaraz diezazkiola.

Kontuan harturik Informazio Batzorde Informatzaile Orokorrak 2020ko martxoaren 3an aldeko irizpena eman zuela.

Eta, besterik gabe, bozketa egin da, eta emaitza hau atera da:

Aldeko botoa eman dute: EH-BILDUKO 6 zinegotziak eta BEASTI BIZIko 3 zinegotziak.

Eta aurrekoaren arabera, ERABAKI DA:

BAKARRA: Presidentziak aurkeztutako mozioa onartzea.

SEIGARREN PUNTUA:

BERASTEGIKO UDAL ERAIKINETAN ENERGIA BERRIZTAGARRI BIDEZ HORNITUTAKO AZPIEGITURA ELEKTRIKO ERAIKITZEKO AZTERKETA ETA GASTUAREN ONARPENA.

Berastegiko Udalak, urteak daramatza bertako herrietan arlo ezberdinetan energia eraginkortasuna hobetzeko eta energia berriztagarriak instalatzeko pausoak ematen.

2020-ko otsailaren 20-an bildu ondoren, **pilotalekua, Udaletxea eta eskola** energia berriztagarrietan oinarritutako azpiegiturez hornitzeko instalazio fotovoltaikoa eraikitze bideragarritasun tekniko ekonomikoa aztertuko duen txostena egitea eskatzen zaigu.



Berastegiko
Udala



HELBURUA

Udal eraikinetan adierazle energetikoak hobetzearen (erregai fosilen pisua, ondorioz sortzen diren CO₂ isurketak, menpekotasun energetikoa edo energia berriztagarrien paper xumea), **baliabide berriztagarriez hornitutako** azpiegitura elektrikoa eraikitzea.

JUSTIFIKAZIOA

Proposamen honetan inongo marka edo produkturik komertzializatzen ez duen energia aholkularitza baten zerbitzuak eskaintzen dira.

Lehenik eta behin garrantzitsua da ulertzea **zergatik**, nola eta zein agentek parte hartzen duten eraikin eta instalazioen energia kontsumoan.



Berastegiko
Udala

$$\text{Kontsumoa} = \frac{\text{Energia beharra}}{\text{Instalazioaren etekina}}$$

Aurreko ekuazioa ikusirik, bi modu daude energia kontsumoa gutxitzeko.

- **Energia beharra gutxituaz.** Behar beharrezko den energia bakarrik kontsumituaz.
- Erabiltzen diren makina eta **instalazioen etekina handituaz** (mantenu egokia eta merkatuko ekipamendu eraginkorrenen bidez)

Energia kontsumoaren nondik norakoak aztertu ondoren, **energia berriztagarrien bidez modu garbian nola sor** daitekeen erakutsiko litzake.

PROPOSAMENA

Proposatzen den lan hau, bi ataletan banatzen da:

- Aipaturiko eraikinetan **une bateko auto-hornikuntza fotovoltaikoa eta soberakinen konpentsazioa bidezko instalazioa** eraikitzeke azpiegituren diseinua egingo da. Eraikin bakoitzerako azpiegitura energetikoak deskribatzen duen **memoria, bideragarritasun tekniko ekonomikoa definituko duen atala, azpiegiturak eraikitzeke beharrezko diren obra unitatea, aurrekontua, instalazioa eraikitzeke eskemak, oinarrizko segurtasun plana, hondakinen kudeaketarako oinarrizko azterlana eta instalazioaren mantenturako eskuliburua** edukiko ditu.
- Ibilgailu elektrikoentzako karga puntu erdi-azkarra** eraiki ahal izateko beharrezko den ekipamenduaren diseinua eta balioa deskribatzen duen dokumentua. Azpiegitura energetikoak deskribatzen duen **memoria, azpiegiturak eraikitzeke beharrezko diren obra unitatea, aurrekontua, instalazioa eraikitzeke eskemak, oinarrizko segurtasun plana, instalazioaren mantenturako eskuliburua** edukiko ditu.

Karga erdi-azkarrak 32 A ko intentsitatea eta 230 V erabiltzen ditu. Horrek esan nahi du karga-mota honetarako puntuak eman dezakeen potentzia elektrikoa gutxi gorabehera 7,3 kW-koa dela. Potentzia maila horri esker, bateria kargatzeko prozesuak 4 ordukoa da gutxi gora behera.



Berastegiko
Udala

Ibilgailu elektrikoentzako karga puntuak oso aproposak dira, eguzki bidez sortutako balizko energia soberakinen aprobetxamendurako.

ESKAINNTZA EKONOMIKOA

Berastegiko Udala
Herriko Enparantza, 1
20492 Berastegi, (Gipuzkoa)

Aurrekontu zbk.
AU 200221

Kop.	Kontzeptua	Prezioa	Zenbatekoa
1	Berastegiko udalerrian, baliabide berriztagarrien bitartez eraikin publikoak hornitzeko azpiegitura elektrikoa eraikitzeko bideragarritasun tekniko-ekonomikoaren azterlana. Pilotalekua, Udaletxe eta eskolarako instalazioa eraikitzeko diseinua eginez.	2800,00	2800,00
1	Ibilgailu elektrikoentzako karga puntu erdi-azkarra eraiki ahal izateko beharrezko den ekipamenduaren diseinua eta balioa deskribatzen duen dokumentua:	525,00	525,00

Garbia

3325,00



Berastegiko
Udala

Kontuan harturik Informazio Batzorde Informatzaile Orokorrak 2020ko martxoaren 3an aldeko irizpena eman zuela.

Eta, besterik gabe, bozketa egin da, eta emaitza hau atera da:

Aldeko botoa eman dute: EH-BILDUko 6 zinegotziak eta BEASTI BIZIko 3 zinegotziak.

Eta aurrekoaren arabera, ERABAKI DA:

BAKARRA: Berastegiko Udal eraikinetan energia berriztagarri bidez hornitutako azpiegitura elektriko eraikitzeke azterketa eta gastua onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA:

OHIKO PLENOEN ORDUTEGIA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

2019ko uztailaren 7an, Udalbatzak Ohiko Osoko Bilkuren bilerak egiteko maiztasuna eta ordutegia onartu zuen.

Ikusirik, ordutegia aldatzea komenigarria dela.

Kontuan harturik Informazio Batzorde Informatzaile Orokorrak 2020ko martxoaren 3an aldeko irizpena eman zuela.

Eta, besterik gabe, bozketa egin da, eta emaitza hau atera da:

Aldeko botoa eman dute: EH-BILDUko 6 zinegotziak eta BEASTI BIZIko 3 zinegotziak.

Eta aurrekoaren arabera, ERABAKI DA:

BAKARRA: Udalbatzak bere ohiko osoko bilkurak bi hilabetez behingo maiztasunez egingo ditu, hilabeteko bigarren asteartean, arratsaldeko zazpiretan.



Berastegiko
Udala

ZORTZIGAREN PUNTUA:

2020KO APIRILAREN 5EAN EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAN MAHAJETAN EGONGO DIREN KIDEAK IZENDATZEA.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, eguneko gai-zerrendako puntu bakarrari ekin zaio, 2020ko apirilaren 5ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak direla-eta hauteskunde mahaietako partaideak aukeratzeko zozketari, hain zuzen ere, hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Horretarako prestatutako informatika-programa baten bidez egin da zozketa; Berastegiko hautesle zentsutik hartu dira datuak, Espainiako Estatistika Institutuak bidalitako datuetatik, hain zuzen.

Zozketaren ondoren, Berastegiko Udalerrian eratuko den mahaietarako lehendakaria eta bokalak aukeratu dira, titular nahiz ordezkokoak, eta horien datuak horretarako orrietan jaso dira.

ELECCIONES / HAUTESKUNDEAK 05-04-2020

COMUNICACIÓN DE LA COMPOSICIÓN DE LAS MESAS / MAHAIEI OSAERAREN JAKINARAZPENA

Circunscripción Electoral Hauteskunde-barrutia GIPUZKOA /	Municipio Udalerria BERASTEGI	Distrito Censal Errola-barrutia 01	Sección Atala 001	Mesa Mahai U	Junta Electoral de Zona de Eskualdeko Hauteskunde Batzordea TOLOSA
---	-------------------------------------	--	-------------------------	--------------------	--

De conformidad con lo previsto en el art. 26 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General y a los efectos de lo establecido en los artículos 27.5 y 101.2 de dicha Ley, han sido nombrados para los cargos que se indican de los/as electores/as que a continuación se detallan:
Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoaren 26. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta lege horren 27.5 eta 101.2 artikuluetan ezarritakoa betez, taularen goian adierazitako karguak betetzeko izendatu dira ondorengo hautesle hauek:

CARGO EN LA MESA MAHAIO KARGUA	1º APELLIDO 1. ABIZENA	2º APELLIDO 2. ABIZENA	NOMBRE IZENA	D.N.I. NAN	Nº ELECTOR HAUTESLE-ZK.	DIRECCIÓN HELBIDEA
TITULARES / TITULARRAK						
PRESIDENTE/A: D/Dª MAHAIBURUA: Jn / And	GOENAGA	ARMENDARIZ	ENEKO	72484198H	U0368	. ELDUJA 16 MUXIKA ELDUJA
1º VOCAL: D/Dª 1. MAHAIKIDEA: Jn / And	EGAÑA	MANTEROLA	JOSE LUIS	15373294W	U0265	. ARANDIA KALEA 28 SUTEGI-BERRI
2º VOCAL: D/Dª 2. MAHAIKIDEA: Jn / And	ARTOLA	ERASO	INMACULADA	29140669Z	U0118	. LEITZA-TOLOSA ETORBIDEA 9 PISO P04 PTA DR ALDERD 1 EDER
SUPLENTES / ORDEZKOAK						
1º DE PRESIDENTE/A: D/Dª 1. MAHAIBURUARENA: Jn / And	LANZETA	JUSTOA	GURUTZE	44167691D	U0460	. LEITZA-TOLOSA ETORBIDEA 6 ESC. B PISO P04 PTA IZ ETXE AURRE
2º DE PRESIDENTE/A: D/Dª 2. MAHAIBURUARENA: Jn / And	ESNAOLA	GOIENECHEA	MATEO	34095010V	U0293	. JESUS ALTUNA 4 AIOLA
1º DE 1º VOCAL: D/Dª 1. MAHAIKIDEAREN 1. ORD.: Jn/And	ETXEBERRIA	PAGOLA	JOKIN	72472448T	U0304	. AMERIALDE 4 POR 4 PISO P01
2º DE 1º VOCAL: D/Dª 1. MAHAIKIDEAREN 2. ORD.: Jn/And	OTERMIN	BALEZTENA	MIREN EDURNE	72672077N	U0631	. IZOTZALDE 41 POR 41
1º DE 2º VOCAL: D/Dª 2. MAHAIKIDEAREN 1. ORD.: Jn/And	CLAUDIO	CORTES	BERNARDINO	33440135K	U0211	. ATEGIKO BIDEA 1 PISO P01 MATXINE-ONDO
2º DE 2º VOCAL: D/Dª 2. MAHAIKIDEAREN 2. ORD.: Jn/And	BEGURISTAIN	LIZARZA	ARRATE	72464001V	U0170	. ARANDIA KALEA 20 PISO P02 ARRU

FIRMA / SINADURA

SR. JA. JUEZ IKER SAIZAR MATXINEA
...EPAILE JAUNA/ANDREA IKER SAIZAR MATXINEA
N.2



Berastegiko
Udala

BEDERATZIGARREN PUNTUA:

BERASTEGIKO BAKE EPAILEA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Alkatetzak RE20200210.015 erreferentzia duen otsailaren 10eko ebazpenean, Bake Epailea eta ordezkoa izendatu eta proposatzeko espediente honi hasiera ematea erabaki zuen, eta espediente honen berri emango zuen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarki oholean eta Epaitegi Barrutiko Dekanatoan jar zedin agindu zuen.

Idazkariak hautaketa prozedurari buruz prestatu zuen txostena irakurtzen da.

Tolosako Epaitegi Dekanora iragarkia 2020ko otsailaren 21ean bidali zen, Epaitegi honek ez du erantzun ea bere iragarki oholean jarri duen bidalitakoa.

Berastegiko udalaren iragarki oholean deialdiaren Bandoa 2020ko otsailaren 14tik 2020ko martxoaren 6ra bitartean jendaurreko erakustaldian egon da.

Deialdiaren iragarkia azkenik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2020ko otsailaren 14 (30 zkiko).

Emandako epean jarraiko hautagaiek izena eman dute:

- 1) IZASKUN MURGIONDO BEA
- 2) IKER SAIZAR MATXINEA

Eta besterik gabe bozketa egin da honako emaitzarekin:

1. IZASKUN MURGIONDO BEA – BAKE EPAILE
2. IKER SAIZAR MATXINEA – BAKE EPAILEAREN ORDEZKOA

Osatutako espedientea guztiz aztertu ondoren, bildutakoen aho batez, hau da, Udalbatzarraren legezko gehiengo osoaren aldeko botoekin, **ERABAKITZEN DA:**

LEHENA: IZASKUN MURGIONDO BEA hautatzea Berastegiko Bake Epaile titularra izan dadin, eta honen ondorioz bere izendapena proposatzea Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiari.



Berastegiko
Udala

HAMARGARREN PUNTUA:
ERREGU ETA GALDERAK.

Puntu honetan, lehendakaritzak bertaratutakoei luzapena egiten die interesgarriak deritzoten galde-eskeak egin ditzaten.

Ez da inongo erregu edo galderarik aurkezten.

Egoera honetan, 20:50 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren islada zehatza dena. Fede ematen dut.

O.E.
Alkateak,

Udaleko Idazkari-Kontu-hartzailea,

Amaia Azkue Eizagirre,

Maria Pilar Garmendia Miguel,